


Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna

EAEko emakume gazteak pozik daude euren egoera pertsonalarekin, baina kezkatuak daude lana dela-eta

Martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, **Gazteen Euskal Behatokiak** hainbat iturritatik ateratako datu estatistikoak aztertu ditu, EAEko emakume gazteen nolabaiteko profila osatzeko asmoz.

Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak prestatutako **Gazteen Argazkiak** seriearen azkeneko txostenak adierazten duen bezala, EAEko 15 eta 29 urte bitarteko lau emakumetik lau pozik daude euren egoera pertsonalarekin (%77), gizon gazteak baino hein handiagoan (%72). Egoera pertsonalarekiko poztasunak gora egin du, aurreko urteetakoarekin alderatuta (%63,2koa zen 2000an, eta %68,3koa 2004an, Gazteen Euskal Behatokiaren **Adierazle Estatistikoaren Sistemari** bildutako datuek aditzera ematen dutenez).

Emakume gazte horien arazo nagusienak lan-merkatuari lotutakoak dira; horietatik nahiko urrun arazo ekonomikoak daude, etxebizitza eta hezkuntza. Lanarekin lotutako arazoekiko kezka (langabezia, lan-baldintzak, prekarietatea eta abar) gora egin du azken urteotan.



Logikoa da, 16 eta 29 urte bitarteko emakume gazteen langabezia-tasa, 2009an, %14,1ekoa izan baita, bai eta 2006tik erregistraturiko zenbatekoen gainetik kokatu ere. 2009an emakume gazteen langabezia-tasa emakumeen kolektibo osoarena baino

garaiagoa izan da (%7,8). Hala ere, gizon gazteen kolektiboan erregistratutakoaren azpitik dago (%18,5).

Emakume gazteen kontratazioa gizon gazteena baino prekarioagoa da. Izan ere, kontratazio mugagabeen ehunekoak gizonenak baino apalagoak dira, eta kontraturik gabekoenak, ostera, altuagoak.

| 16 ETA 29 URTE BITARTEKO SOLDATAPEKO BIZTANLE OKUPATUAK, KONTRATU MOTAREN ETA SEXUAREN ARABERA. 2009 (Milakotan eta ehunekotan) | | | | |
|---|-----------------|------------|---------------|------------|
| KONTRATAZIO MOTA | Emakume gazteak | | Gizon gazteak | |
| | Milakotan | Ehunekotan | Milakotan | Ehunekotan |
| Kontratu mugagabea | 36,3 | %52,6 | 44,3 | %60,0 |
| Aldi baterako kontratua | 29,6 | %42,9 | 29,0 | %39,3 |
| Kontraturik gabea | 3,0 | %4,3 | 0,5 | %0,6 |
| GUZTIRA | 69,0 | %100 | 73,8 | %100 |
| <i>Iturria: Gazteen Euskal Behatokiaren Adierazle Estatistikoaren Sistema</i> | | | | |

Nolanahi ere, emakume gazteak baikorrak dira etorkizunera begira; izan ere, etorkizuna oraina baino hobea izango dela uste dute hiru emakume gaztetik bik.